

Informazioaren Gizartea eta enpresak

Emitzen analisia

La Sociedad de la Información y las empresas

Análisis de resultados

Informazioaren Gizartea eta enpresak

La Sociedad de la Información y las empresas

ÍNDICE

AURKIBIDEA

	Pág/Or.	
LA SOCIEDAD DE LA INFORMACIÓN Y LAS EMPRESAS	1	INFORMAZIOAREN GIZARTEA ETA ENPRESAK
1. Introducción	3	1. Sarrera
2. Equipamientos TIC y su utilización en las empresas de la C.A. de Euskadi	3	2. IKT-ak eta haien erabilera Eulka Autonomia Erkidegoko enpresetan
3. Tipos de acceso a la red	10	3. Sarerako sarbide-motak
4. Uso de Internet	11	4. Interneten erabilera
5. Empresas con sitio web en Internet	12	5. Interneten web gunea duten enpresak
6. Comercio electrónico	17	6. Merkataritza elektronikoa
7. Obstáculos al comercio electrónico	25	7. Merkataritza elektronikorako eragozpenak
8. Seguridad informática	26	8. Segurtasun informatikoa
9. Comparación con otros países	27	9. Beste herrialdeetako datuak
10. Encuesta sobre la Sociedad de la Información: Sector Primario	32	10. Informazioaren Gizarteari buruzko inkesta. Lehenengo sektorea
11. Notas metodológicas. Cuestionarios	35	11. Metodologia-oharrak. Galdesortak
11.1. Ficha metodológica	35	11.1. Metodologia-fitxa
11.2. Conceptos y definiciones	39	11.2. Kontzeptuak eta definizioak

1. Introducción

Los resultados obtenidos en esta última edición de la Encuesta sobre la Sociedad de la Información en empresas (ESI empresas), elaborada por Eustat, ponen de manifiesto cómo las empresas vascas continúan mejorando sus equipamientos TIC –Tecnologías de la Información y de la Comunicación– al comienzo del año 2006, manteniéndose la reactivación producida el año anterior.

Esta mejora supone que los principales equipamientos: ordenador, correo electrónico e Internet, consigan un aumento de cuatro puntos porcentuales y el teléfono móvil de 1,1 puntos.

Además, el porcentaje de empleados que usan estas tecnologías también se incrementa de manera notable, superando ahora el 47% del personal en todos los casos.

La Encuesta sobre la Sociedad de la Información (ESI empresas), alcanza este año la sexta edición y se ha realizado en el primer trimestre de 2006. Se dirige a empresas vascas de cualquier sector de actividad, salvo el primario, y se pretende conocer: los equipamientos de que disponen y la utilización que hacen estas empresas de las tecnologías de la información y de las comunicaciones (TIC), qué tipo de acceso tienen y qué uso hacen de Internet y si tienen presencia en la red mediante página Web.

También se analiza la importancia y la utilización que hacen del comercio electrónico, así como su distribución geográfica, los obstáculos que encuentran para un mayor desarrollo del mismo y, por último, de qué medidas disponen para su seguridad informática.

Los datos mostrados están basados en una respuesta de 7.500 establecimientos ubicados en la C.A de Euskadi.

A continuación, y siguiendo el orden establecido en el cuestionario utilizado para la recopilación de los datos, se observa la información obtenida.

2. Equipamientos TIC y su utilización en las empresas de la C.A. de Euskadi

En este capítulo se analiza el grado de penetración de las tecnologías de la información y de las comunicaciones (TIC) en las empresas de la C.A. de Euskadi.

En el primer gráfico se muestra, para cada una de las diferentes tecnologías TIC, el porcentaje de establecimientos que están equipados con cada una de ellas. Además, según cuál sea su tamaño de empleo, se pueden observar grandes dife-

1. Sarrera

Eustatek egin duen Informazioaren Gizarteari buruzko azken Inkestan (IGI-Enpresak) azaltzen da 2006. urte hasieran EAEko enpresek bere IKT (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia) ekipamenduak hobetzen jarraitu dutela; hau da, aurreko urtean hasitako suspertzea mantendu da urte horretan.

Hobekuntza horren ondorioz ekipamendu nagusienak (ordenagailua, posta elektronikoa eta Internet) %4 gehitu dira eta sake-lako telefonoa %1,1.

Gainera, teknologia horiek erabiltzen dituzten langileen ehuneko ere nabarmen gehitu da; kasu guztietan langile kopurua %47 gehitu da.

Aurtengo Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestarekin (IGI-enpresak) dagoeneko mota honetako sei inkesta egin dira; inkesta hau 2006ko lehenengo hiruhilekoan egin da. Lehenengoan ez beste sektoreetan diharduten euskal enpre-tan egin da inkesta, jakin nahi baita zenbateraino dauden enpre-sa horiek informazioaren eta komunikazioaren teknologiez (IKT) hornituta, zertarako erabiltzen dituzten, nola dauden lotuta Interneti, zein helbururekin eta web gunerik ote duten.

Aztertu zen, orobat, zein neurritan eta nola baliatzen diren mer-kataritza elektronikoz, haren hedapen geografikoa, oztoporik ote duten merkataritza elektronikoa garatzeko eta, azkenik, nolako neurriak dituzten segurtasun informatikoa bermatzeko.

Inkestari Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako 7.500 esta-blezimenduk erantzun zioten.

Jarraian atera den informazioa azaltzen da, datuak biltzeko gal-deketan ezartzen den hurrenkeran.

2. IKT-ak eta haien erabilera Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetan

Kapitulu honetan aztertzen da informazioaren eta komunika-zioaren teknologia (IKT) zenbateraino sartu diren Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetan.

Lehen grafikoak adierazten digu, ehunekoetan, zenbat enpre-sak duten informazio eta komunikazio teknologietako (IKT) bakoitza. Erabilera tasari erreparatuta, alde nabarmena dago hornikuntza mailan, Euskal Autonomia Erkidegoan teknologia


rencias en los equipamientos que poseen, dándose un porcentaje de implantación muy superior en los establecimientos de 10 o más empleados de la Comunidad Autónoma de Euskadi que en los establecimientos más pequeños.

hauek askoz ohikoagoak baitira 10 langile edo gehiagoko enpresetan txikiagoetan baino.

Establecimientos por equipamientos TIC y estrato empleo en 2006. (%)

1.

Enpresak, IKTen hornikuntzaren eta langile kopuruaren arabera, 2006 (%).



Observando una a una estas tecnologías, se ve que prácticamente la totalidad de los establecimientos de la C.A. de Euskadi con 10 o más empleados (97,6%), disponen de ordenador para el desarrollo de su actividad. Este alto porcentaje, sin embargo, desciende hasta el 68,6% si se toma como referencia al total de los establecimientos. Hay que tener en cuenta que, en este último caso, se incluyen las empresas cuya titularidad es la persona física o los denominados autónomos, donde, en general, la inversión destinada a este tipo de tecnologías es muy inferior.

Sin embargo, estas diferencias tan acusadas en los porcentajes obtenidos según el tamaño del establecimiento se van reduciendo año tras año, al quedar cada vez menos margen de crecimiento en los establecimientos mayores.

En el caso del ordenador personal, si se comparan los resultados obtenidos este año con los datos del año anterior, se aprecia que, mientras los establecimientos con 10 o más empleados parecen haber tocado techo en lo que respecta a su implantación, pues la diferencia es de 0,4 puntos porcentuales (97,6% este año por 97,2% el año anterior), si se tienen en cuenta todos los establecimientos, se produce un aumento de 4 puntos porcentuales (pasa del 64,5% al 68,6%), en el número total de los que incorporan ordenadores a su equipamiento. Este dato, por tanto, denota una cierta tendencia al aumento de este nivel de informatización básico en los estratos más bajos de nivel de empleo en el País Vasco.

Teknologiak banan-banan aztertuta ikusten da 10 langile edo gehiago duten Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa ia guztiek (%97,6) ordenagailua erabiltzen dutela lanerako. Ehuneko hori altua da, baina enpresa guztiak kontuan hartuz gero ehuneko %68,6an geratzen da. Izan ere, azken kasu honetan titularra persona fisiko bat edo autonomoa duten enpresak sartzen dira eta horietan, orokorrean, teknologia mota horietarako inbertsioak urriagoak izaten dira.

Enpresaren tamaina kontuan hartuta atera diren ehuneko horien artean alde handiak daude, enpresa handiek gero eta aukera gutxiago dutelako zabalteko.

Ordenagailu pertsonalari dagokionez, urte honetan atera diren datuak aurreko urtekoekin alderatuz gero zera ikusten da: 10 langile edo gehiago dituzten enpresak dirudenez ezin dira gehiago zabaldu %0,4ko aldea baino ez dute-eta (urte honetan %97,6koa eta aurreko urtean %97,2koa); baina enpresa guztiak kontuan hartuta ordenagailuak erosi dituztenen gehikuntza %4koa da (%64,5etik %68,6ra). Euskadin, beraz, oinarritzko informatizazioak aurrera egin du langile gutxiko enpresetan.

Otro de los elementos tecnológicos con índices de penetración más elevados es el teléfono móvil. En la C.A. de Euskadi el 72,8% de los establecimientos utilizan el móvil u otros servicios de comunicación personal, tras haberse incrementado 1,1 punto porcentual respecto al año anterior. Este porcentaje se eleva al 86,4% si se toman en cuenta únicamente los establecimientos de 10 o más empleados, manteniéndose, en este caso, el mismo porcentaje del año anterior.

En cuanto a las tecnologías vinculadas a la red y que son, sin duda, las que se relacionan más directamente hoy en día con la denominada sociedad de la información, el 56,4% de los establecimientos están conectados a Internet y el 52,0% usan correo electrónico, tras haberse incrementado en el último año 4,5 y 4,0 puntos respectivamente. Si se establece de nuevo la divisoria en los establecimientos de 10 o más trabajadores, resulta que, en estos últimos, el 93,0% disponen de Internet y el 92,8%, utilizan correo electrónico, habiendo ganado, en el mismo orden, 1,9 y 0,9 puntos también respecto al año anterior.

Se puede apreciar con más claridad la diferencia en el nivel de equipamientos, según el tamaño de los establecimientos, si se observan los estratos de empleo más extremos entre sí. Así, los establecimientos más pequeños (hasta 2 empleados), a pesar de haber tenido un mayor aumento porcentual este año, siguen teniendo los niveles más bajos, oscilando entre el 42,1% de los que disponen de correo electrónico y el 71,3% de los que tienen teléfono móvil, pasando por el 59,9% que poseen ordenadores y el 47,5% con acceso a Internet. En contraposición, los establecimientos mayores (100 o más empleados) tienen una disponibilidad cercana al 100% en todos los equipamientos.

Por tanto, aunque en los establecimientos pequeños se va notando una progresiva incorporación a la red, aún están lejos de alcanzar las cifras obtenidas en los de mayor empleo.

Sakelako telefonoak ere badira gehien zabaldu diren beste gailu teknologiko batzuk. Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen %72,8k sakelako telefonoa edo beste komunikazio zerbitzu pertsonalen bat erabiltzen du; ehuneko hau aurreko urtearen aldean %1,1 gehitu da. Baina 10 langile edo gehiago dituzten enpresak bakarrik hartzen badira kontuan ehuneko hori %86,4koa da, eta aurreko urtearen aldean ehuneko bera izan da.


Egun, zalantzarik gabe, informazioaren gizartea deitzen dugun horri lotuen ageri diren teknologiak sarearekin zerikusia dutenak dira; bada, teknologia hauen %56,4 Internetera daude konektatuta eta %52,0ak posta elektronikoa erabiltzen du. Ehuneko hauek %4,5 eta %4,0 gehitu dira, beraz, hurrenez hurren. Baina 10 langile edo gehiagoko ezaugarria ezarriz gero honako datuak ateratzen dira: 10 langile edo gehiago dituzten enpresen %93,0ak Internet dauka eta enpresa horien %92,8ak posta elektronikoa erabiltzen du. Ehuneko horiek, aurreko urtearen aldean, %1,9 eta %0,9 gehitu dira.

Langile gehieneko eta gutxieneko lantokiak alderatzen baditugu, argiago ikusten da nola aldatzen den hornikuntza maila enpresen tamainaren arabera. Izan ere, txikienetan (2 langilerainokoak) aurten ehuneko gehitu da, baina hala eta guztiz ere, oraindik mailarik apalenean daude, eta tasak asko aldatzen dira teknologia motaren arabera: %42,1ek posta elektronikoa du, %71,3ek sakelako telefonoa, %59,9k ordenagailuak eta %47,5ek Internetetik lotura. 100 langile edo gehiagoko enpresa handien kasuan, aldiz, ia guztiek dauzkate tresna horiek guztiak.

Hala, bada, nahiz eta gero eta enpresa txiki gehiagok sarearekiko lotura eduki, oraindik ere haien datuak urrun samar daude langile gehiagoko enpresetakoetatik.

Personal con acceso a los equipamientos TIC por estrato de empleo en 2006. (%)

IKTen erabiltzaile kopurua enpresetan, langile kopuruaren arabera, 2006 (%).



El tamaño que tenga un establecimiento, sin embargo, no influye tanto en el uso que el personal empleado hace de estas tecnologías. Los porcentajes de utilización entre los empleados son similares en todos los tamaños de empleo.

Mientras en los establecimientos de menos de tres personas el 52,4% de los empleados utilizan el ordenador personal, en los establecimientos mayores, de cien o más empleados, este porcentaje supone el 61,3%. En el caso del correo electrónico, el personal que lo utiliza supone el 35,4% en los establecimientos más pequeños y el 54,7% en los establecimientos de cien o más empleados. Por último, en el uso de Internet, las diferencias todavía son más reducidas, pues si en los establecimientos de 0 a 2 empleados el porcentaje que lo utiliza es el 40,9%, en los establecimientos más grandes se llega al 46,7%.

Esto se puede deber a que, mientras en los grandes establecimientos sólo una parte de los empleados, normalmente los de oficina, tienen acceso a estos equipamientos, en los establecimientos pequeños el trabajo no está tan diferenciado, teniendo que hacer cada persona un poco de todo.

Por tanto, aunque los establecimientos grandes tienen claramente un mayor equipamiento, el porcentaje de personal que hace uso de estas tecnologías es más similar y no depende tanto del tamaño de la empresa.

Desde otro punto de vista, si se toman como referencia las diferentes actividades que desarrollan las empresas, se pueden ver cuáles son los sectores más dinámicos en la incorporación de las TIC.

Por el gráfico se aprecia cómo, en la Comunidad Autónoma de Euskadi, los establecimientos del sector industrial tiene una mayor participación en la incorporación de estas tecnologías que los sectores de construcción y de servicios.

Dena den, enpresaren tamainak ez du zerikusi handirik teknologia hauetaz langileek egiten duten erabileran. Enpresa guztietan antzeko erabilera egiten dute langileek teknologia horietaz, berdin da enpresak zenbat langile dituen.

Hiru langile baino gutxiagoko enpresetan langileen %52,4ak ordenagailu pertsonala erabiltzen du; langile gehiago duten enpresetan (ehun edo gehiagokoetan) %61,3ak erabiltzen du ordenagailu pertsonala. Bestalde, enpresa txikietan langileen %35,4ak erabiltzen du posta elektronikoa eta ehun langile edo gehiagoko enpresetan %54,7ak. Azkenik, Interneten erabilerari dagokionez, aldea estuagoa da, 0-2 langile bitarteko enpresetan hori erabiltzen dutenen ehunekoa %40,9koa baita, eta handiagoetan %46,7koa.

Hala da, beharbada, lantoki handietan soilik erabiltzen dituztelako honelako tresnak enplegatu batzuek, gehienetan bulegoetakoe, baina enpresa txikietan, ordea, lana ez dago horren sailkatuta, eta hein batean, pertsona guztiek denetarik egiten dute.


Hortaz, enpresa handiak hornituago dauden arren teknologia hauek erabiltzen dituztenen ehunekoa enpresa txikiagoetako datuen antzekoagoa da, beraz, lantokiaren tamaina ez da erabakigarria.

Beste ikuspegi bat kontuan hartuta, enpresak jardueraren arabera bereiziz gero agerian geratzen da zein diren sektorerik bizkorrenak IKTak eskuratzeko orduan.

Grafikoan ikusten da Euskal Autonomia Erkidegoko industri sektoreko enpresek eraikuntza eta zerbitzuen sektoreetako enpresek baino sarriago sartzan dituztela teknologia hauek.

Establecimientos por equipamientos TIC y sectores en 2006. (%)

3. Establezimenduak, IKT hornikuntzen eta sektoreen arabera, 2006. (%)



Concretando un poco más, los sectores que más contribuyen a alcanzar estos porcentajes de equipamientos TIC son, en Industria, el sector de “Papel, edición y artes gráficas” y la “Industria química” y, en Servicios, “Administración pública” y “Banca y seguros”.

En sentido contrario, también hay actividades que por sus propias características no parecen adaptarse bien a estas nuevas necesidades tecnológicas. Así, “Textil y confección” en Industria y “Hostelería” en Servicios, obtienen unos porcentajes de equipamientos muy alejados del resto de los sectores observados, quizá debido al pequeño tamaño de la mayoría de sus establecimientos, lo que no ayuda a la incorporación de estas tecnologías.

Siguiendo con los sectores de actividad, pero según el personal ocupado, se observa cómo, en este caso, son los trabajadores del sector servicios los que claramente tienen un mayor acceso a las tecnologías de la información y comunicación, independientemente del tamaño de empleo que se observe.


Pixka bat gehiago zehazte aldera, IKTen hornikuntza gehien hazi den sektoreetan aipatzekoak dira, industrian, “papergintza, edizioa eta arte grafikoak”, eta zerbitzuetan, “herri administrazioa” eta “bankuak eta aseguruak”.

Era berean, zenbait jarduera kostata moldatzen dira, beren ezaugarriengatik, teknologiek orain planteatzen dituzten beharretara. Horrela, industrian “ehungintza eta jantzigintza” adarrak eta zerbitzuen sektorean “ostalaritza” adarrak hornidura mota hauetan duten ehunekoa beste sektoreen ehunekoetatik oso urrun geratzen dira, eta hori izan daiteke enpresa gehienak txikiak direnez ez delako erraza teknologia horiek hartzea.

Jarduera sektoreen azterketa hau langileen kopurua ere kontuan harturik egiten badugu, argi ikusiko dugu zerbitzuetako langileek besteek baino eskuragarriago dauzkatela informazio eta komunikazio teknologiak, enpresa zer tamainatakoa den ere.

Personal con acceso a los equipamientos TIC por sectores en 2006. (%)

4. IKTak erabilgarri dauzkan langile kopurua, sektoreka. 2006. (%)



Así, en el sector servicios, el ordenador personal lo emplean el 67,4% de sus trabajadores, mientras que en el caso de la industria o de la construcción lo utilizan el 44,6% y el 43,8% respectivamente. Al correo electrónico, por su parte, tiene acceso el 53,1% del personal de servicios mientras que en industria o construcción acceden el 37,0% y el 30,8% respectivamente. Por último, también en el uso de Internet hay una fuerte desproporción entre el 54,9% del personal que lo emplea en servicios y el 33,2% que están conectados en industria o el 35,7% en construcción.

Zerbitzuen sektorean %67,4 langilek erabiltzen dute ordenagailua, eta industrian eta eraikuntzan, ordea, %44,6k eta %43,8k hurrenez hurren. Posta elektronikokoaren kasuan, erabiltzaileen portzentajea %53,1ekoa da zerbitzuetan, baina industrian %37,0ra jaisten da, eta eraikuntzan %30,8raino. Internetera joz, horretan ere handi samarra da sektoreen arteko aldea, zerbitzuetan langileen %54,9k erabiltzen dutelako, eta beste bietan soilik %33,2k (industria) eta %35,7k (eraikuntza).

Por tanto, y tras lo visto, según cómo se analicen los datos obtenidos, el sector más dinámico de la economía, en cuanto a disponer de equipamientos TIC, será diferente. Así, el sector de la industria destaca claramente sobre los demás sectores en la proporción de establecimientos que disponen de estas tecnologías, pero, si lo que se tiene en cuenta es el porcentaje de empleados que tienen acceso a estos equipamientos, el que sobresale sobre el resto es el sector servicios.

Una explicación a esto último puede ser debida a que, si bien en el sector industrial los establecimientos son de mayor tamaño y están mejor equipados, sin embargo una parte importante de su personal se dedica a tareas de producción, no teniendo acceso a estas tecnologías. Por el contrario, en el sector servicios, aunque los establecimientos en general son más pequeños y disponen de menos medios tecnológicos, la mayoría del personal se dedica a administración o a atención al público, estando en oficina, donde se hace un mayor uso de estos equipamientos que en talleres.

Por Territorio Histórico, aunque los resultados obtenidos son muy similares, en los establecimientos situados en Álava se obtienen unos equipamientos ligeramente superiores, disponiendo de estas tecnologías con más frecuencia que en los otros dos territorios. Bizkaia y Guipúzcoa, por su parte, obtienen resultados análogos.

Horrenbestez, orain artekoa kontuan hartuta, lortutako datuak aztertzeko moduren arabera ekonomian IKT ekipamenduak dituen sektorerik dinamikoena edozein izan daiteke. Industri sektorea beste guztiek baino enpresa gehiago ditu teknologia horiekin, baina ekipamendu horiek erabiltzen dituzten langileen ehunekoa kontuan hartuz gero zerbitzuen sektorea da beste guztien gainetik geratzen dena.


Azken horren zergatia argitzeko, esan liteke industri sektoreko enpresek, handiagoak direnez, hornikuntza hobea dutela, baina beren langile asko ez dira horrelako teknologiez baliatzen, ekoizpen-lanetan jarduten dutelako. Zerbitzuetan, berriz, enpresak txikiagoak izaten diren arren eta baliabide teknologiko gutxiago izaten duten arren enplegatu gehienek bulegoetan lan egiten dute, administrazioan edo jendaurrean ari direlako, eta zeregin horietan tailerlean baino maizago erabili behar izaten dira mota honetako tresnak.

Lurralde historikoka lortu diren emaitzak oso antzekoak dira baina, hala ere, Arabako enpresetan ekipamendu pixka bat gehiago daude, beste lurralde batzuetan baino maizago erabiltzen baitituzte teknologia hauek. Bizkaia eta Gipuzkoak antzeko kopurua dute.

Establecimientos por equipamientos TIC y Territorio Histórico en 2006. (%)

IKTak dituzten enpresak lurralde historiko bakoitzean. 2006. (%)

5.



También, existen otras tecnologías más especializadas, aunque con unos niveles de incorporación a los establecimientos más reducidos, como redes locales, Intranet, Extranet, etc. De red local o extendida disponen el 32,9% de los establecimientos, mientras que la utilización de otras redes basadas en el protocolo de Internet, como Intranet y Extranet, alcanzan respectivamente el 15,5% y el 6,6% de los establecimientos. En cuanto a otros usos de las tecnologías de la información, como pueden ser la Transferencia Electrónica de Fondos o el Intercambio Electrónico de Datos (EDI), su utilización, por parte de los establecimientos, es del 33,5% y del 10,3% respectivamente.

Por los datos obtenidos, se observa cómo el uso de estas tecnologías parece implicar un cierto tamaño en las organizaciones que las emplean. Así, mientras en los establecimientos más pequeños, de 0 a 2 empleados, tienen Intranet el 8,0% y Extranet el 3,6%, en los establecimientos de más de 100 empleados, estas mismas tecnologías alcanzan unos porcentajes que se elevan hasta el 82,0% y el 45,1% respectivamente, lo que confirma la fuerte correlación existente entre el tamaño del establecimiento y el disponer o no de estas redes o protocolos.

Por último, y como resumen de éste capítulo, se puede apreciar en el gráfico la continua evolución que está teniendo la implantación de estas tecnologías en las empresas vascas durante los seis últimos años, tanto en el total de establecimientos como en los de 10 o más empleados.

Gainera, teknologia espezializatuak (toki sareak, intranet, extranet...) bakanago agertzen dira oraindik enpresetan. Izan ere, enpresen %32,9k toki sarea edo sare hedatua duten arren, Interneteko protokoloan oinarritutako beste sare batzuk, adibidez intranet, bakarrik ageri da lantokien %15,5an, eta extranet %6,6an. Era berean, informazio teknologien bestelako erabilerei dagokienez, enpresetako %33,5ek baino ez dituzte Funtzen Transferentzia Elektronikoa egiten, eta %10,3 soilik baliatzen dira Datu-truke elektronikoz (EDI).


Lortutako datuak aztertu ondoren ikusten da teknologia hauek erabiltzen dituzten enpresak tamaina jakin batekoak izaten direla. Hau da, enpresa txikien artean (0-2 langile) %8,0ak intranet dauka eta %3,6ak extranet; 100 langile baino gehiagoko enpresetan teknologia hauek dituzte %82,0ak eta %45,1ak hurrenez hurren. Beraz, enpresaren tamaina eta sare edo protokoloak edukitzea oso lotuta daudela baieztatzen da.

Azkenik, eta kapitulu laburbilduz, grafikoa ikusten da azken sei urteetan EAEko enpresetan teknologia hauek gero eta gehiago ezarri direla, bai enpresa guztietan bai 10 langile edo gehiago dituzten enpresetan.

Evolución en los establecimientos vascos de los equipamientos TIC 2001-2006. (%)

6.


IKTdun enpresen bilakaera (%) Euskal Autonomia Erkidegoan (2001-2006)



3. TIPOS DE ACCESO A LA RED

Otra información importante que facilita la Encuesta sobre la Sociedad de la información en las Empresas trata sobre qué porcentaje de ellas tiene acceso a Internet y a través de que medio se conectan, además del uso que hacen de esas conexiones.

Establecimientos con acceso a Internet por estrato de empleo y año. (%)



El 56,4% de las empresas vascas acceden a Internet, tras un aumento este año de 4,5 puntos porcentuales. Si se consideran sólo los establecimientos de diez o más empleados, este porcentaje alcanza la cifra del 93,0%, al haberse incrementado en 1,9 puntos porcentuales el porcentaje obtenido en 2005.

También es importante conocer el tipo de conexión que se emplea para incorporarse a la red, debido a la constante evolución que se produce y, sobre todo, por las distintas velocidades de navegación que proporciona cada una de ellas.

Actualmente, y de forma muy mayoritaria, son las líneas ADSL la vía principal por la que acceden a Internet las empresas vascas, aumentando además esa preponderancia año tras año. A principios de 2006 el 71,1% de las empresas que entran a la red lo hacen por esta vía, porcentaje que, respecto al año anterior, aumenta en 9,4 puntos porcentuales. La segunda forma de acceso más utilizada, aunque a una distancia cada vez mayor de la primera, sería a través de líneas telefónicas ordinarias con módem, que suponen el 26,1% de las empresas que se conectan a Internet, tras haber perdido 11,9 puntos porcentuales respecto al año anterior. Las líneas RDSI, por su parte, también sufren un retroceso de 1,2 puntos porcentuales, representando actualmente al 9,2% del total de establecimientos conectados.

3. SARERAKO SARBIDE MOTAK

Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestak (Enpresak) beste informazio bat ere ematen du: zenbat enpresak duen Interneterako sarbidea, horretarako zein sarbide mota erabiltzen duten eta konexioak nola erabiltzen dituzten.

7. Interneteko sarbidea duten enpresak, langile kopuruaren arabera. Bilakaera urtez urte. (%)

EAEko enpresen %56,4ak Interneterako sarbidea dauka; horrela, urte honetan kopuru hori %4,5 gehitu da. Hamar langile edo gehiagoko enpresetan datu hori %93,0ra iristen da, 2005eko ehunekoak 1,9 puntu igo zen eta.

Era berean, garrantzitsua da jakitea zein konexio mota erabiltzen duten enpresek sarean sartzeko, bilakaera etengabea delako eta, batez ere, horietariko bakoitzak nabigatzeko abia-dura jakin bat ematen duelako.


Egun EAEko enpresek Internetera sartzeko gehien erabiltzen duten konexioa ADSL lineak dira, eta urtez urte gero eta gehiagok erabiltzen dute sarbide hori gainera. 2006. urtearen hasieran, sarean sartzen ziren enpresen %71,1ak sarbide hori erabili zuten; bada, aurreko urtearen aldean, %9,4 gehitu da kopuru hori. Bigarren sarbide erabiliena –lehenengotik gero eta alde handiagoaz baina– telefono linea modemduak dira, Internetera era horretan sartzen diren enpresak (%26,1) iaz baino %11,9 gutxiago dira eta. RDSI motako lineak ere %1,2 gutxitu dira, egun bakarrik erabiltzen baitituzte konektatutako enpresen %9,2k.

Por último, hay otro tipo de conexiones, normalmente de banda ancha y limitadas a las empresas más grandes, que suponen el 10,6% del total de establecimientos.

Azkenik, bestelako konexioak, gehienetan banda zabalekoak, batez ere enpresa handienetan kokatzen dira, hortaz, establezimenduen %10,6an baino ez.

Establecimientos con acceso a Internet por tipo de conexión, estrato de empleo y año. (%)

8. **Interneterako sarbidea duten enpresak, lotura motaren eta langile kopuruaren arabera. Bilakaera urtez urte (%)**



En cuanto a los establecimientos de 10 o más empleados, la desproporción a favor del acceso a la red a través de las líneas ADSL es todavía mayor, representando ahora un porcentaje del 82,3%. A continuación, y para este tamaño de establecimiento, figuran las líneas RDSI y las líneas telefónicas ordinarias con módem, con el 13,7% y el 13,3% de los establecimientos respectivamente. Por último, por otras vías accederían el 17,2%.

Bestalde, 10 langile edo gehiagoko enpresetan are alde handiagoa ematen da; enpresen %82,3ak ADSL lineak erabiltzen ditu sarera sartzeko. Langile kopuru hori duten enpresei dagokienez, gainera, sarbide horren ostean gehien erabiltzen direnak RDSI lineak (enpresen %13,7) eta telefono linea modem-dunak (enpresen %13,3) dira. Azkenik, %17,2ak beste sarbide batzuk erabiltzen ditu.

Por tanto, y como se puede apreciar en el gráfico de acceso a Internet por tipo de conexión, el módem, que era la vía principal de acceso a la red, se ha ido sustituyendo, ha ido perdiendo terreno de forma muy acusada a favor del empleo de las líneas ADSL.

Interneterako sarbideak irudikatzen dituen grafikoak erakusten digunez, modemak, sarerako sarbide nagusia izanak, atzera egin du neurri handi batean, eta ADSL lineak zabalduz joan dira haren orde.

4. USO DE INTERNET


4. INTERNETEN ERABILERA

El uso que se hace de Internet y qué es lo que más interesa a los establecimientos que tienen acceso a la red, son otras de las preguntas que se formulan en esta encuesta y que, dependiendo de la perspectiva empresarial o comercial que le quieran dar, serán muy diferentes.

Internet nola erabiltzen den eta sarera sartzen diren enpresei zer interesatzen zaien gehien jakiteko galderak ere egin dira inkesta honetan, eta erantzunak oso ezberdinak dira enpresa edo merkataritza ikuspegia kontuan hartuz gero.

Entre los usos principales que las empresas hacen de sus equipos en Internet, destaca la búsqueda de información general como el principal objetivo, utilizándolo con este fin prácticamente la totalidad, el 92,7%, de las empresas que acceden a la red.

Enpresek Internet erabiltzeko dituzten arazoietatik, sarrien aipatzen da informazio orokorra bilatzea, hala egiten baitute ia gehienek: sarerako sarbidea duten enpresen %92,7ak.



Seguidamente, sería la obtención de información bancaria o financiera y la realización de transacciones con entidades financieras, con un 66,9% y un 60,7% respectivamente de establecimientos con Internet, los motivos por los que utilizan la red.

Con un 42,2%, también se puede destacar las que utilizan Internet para su comunicación con las Administraciones Públicas y poder así realizar, mediante esta vía, algunos trámites administrativos.

Hay otros usos importantes para la utilización de Internet, como acceder a las bases de datos de proveedores-clientes, con un 39,5%, y recibir o bajarse de la red productos digitales como software, etc., con un 37,3%.

Por último, también hay que hacer referencia a otras actividades que, aunque se emplean de forma menos habitual, también las realizan las empresas con conexión a Internet. Estas otras actividades serían: acceso a cursos o formación del personal (25,1%), análisis de competidores (22,4%), compras de bienes y servicios (16,9%), obtención de servicios post-venta (14,5%), reclutamiento de personal (10,1%) y ventas de bienes y servicios (3,4%).

5. EMPRESAS CON SITIO WEB EN INTERNET

A la hora de analizar la posición que ocupan las empresas en el uso de las nuevas tecnologías, un indicador importante sería conocer si éstas tienen presencia en Internet o no, a través de una página Web, ya sea mediante un servidor propio o alojada en un servidor ajeno.

A comienzos de 2006, el 23,1% del total de establecimientos disponía de página Web, tras aumentar 3,3 puntos porcentuales en el último año. Esta página Web puede ser propia (12,7%) o alojada en otro servidor (10,4%).

Sarea erabiltzeko agertzen den bigarren arrazoia da banku- edo finantza-informazioa eskuratzea eta finantza erakundeekin transakzioak egitea, enpresa sarbidedunen %66,9ak lehen motako eragiriketak egiten baitituzte eta %60,7ak bigarren motakoak.

Azpirarratzekoa da, halaber, enpresen %42,2 Internetez baliatzen direla Administrazio Publikoekin harremanetan jartzeko eta zenbait administrazio-izapide ere horrela egiteko.

Bestetik, Internet maiz erabiltzen da hornitzaileen eta bezeroen datu-baseetara jotzeko (%39,5) eta softwarea edo bestelako produktu digitalak sarearen bidez jasotzeko edo jaisteko (%37,3).

Azkenik, Internetarako sarbidea duten enpresek hain maiz izan ez arren erabiltzen dituzten beste jarduera batzuk ere aipatu behar dira. Hauek dira beste jarduera horiek: ikastaroak edo langileentzako prestakuntza saioak (%25,1), lehiakideen azterketa (%22,4), ondasunak eta zerbitzuak erostea (%16,9), saldu osteko zerbitzuak lortzea (%14,5), langileak bilatzea (%10,1) eta ondasunak eta zerbitzuak saltzea (%3,4).


5. INTERNETEN WEB GUNEA DUTEN ENPRESAK

Teknologia berrien erabilera enpresetan neurtzean, oso lagungarria da jakitea enpresa horiek web gunerik duten Interneten edo ez, web guna hori berezko zerbitzari batean nahiz besteren zerbitzari batean sartuta eduki zein ez.

2006. urtearen hasieran, enpresen %23,1ak web gunea zeukan, azken urtean %3,3 gehituz, orduan, horien kopurua. Enpresa batzuek bere web gunea dute (%12,7) baina beste batzuek beste zerbitzari batean dute kokatuta (%10,4).

Establecimientos con presencia en Internet por estrato de empleo y año. (%)

10. Interneterako sarbidea duten enpresak, langile kopuruaren arabera. Bilakaera urtez urte (%)




Estas cifras se incrementan de forma notable a medida que los establecimientos van aumentando de tamaño. Así, la presencia en la red mediante página Web se incrementa desde el 13,5% que supone en los establecimientos más pequeños (0 a 2 empleados) hasta el 89,7% en los establecimientos de 100 o más empleados.

Enpresa zenbat eta handiagoa izan orduan eta handiagoak dira kopuru hauek. Izan ere, sarean web gunea dute enpresa txikien (0-2 langile) %13,5ak eta 100 langile edo gehiagoko enpresen %89,7ak.

Establecimientos con presencia en Internet por año de creación de las páginas web y estrato de empleo. (%)

11. Interneten dauden enpresak, web orria sortu zuten urtearen eta langile kopuruaren arabera (%)



También se puede observar cómo durante los últimos años la creación de páginas Web en las empresas del País Vasco ha sido continua, alcanzando unos crecimientos sostenidos de aproximadamente un 10% anual, tanto para el total de empresas como para los establecimientos de 10 o más empleados. Actualmente, más de la mitad de las páginas Web se han creado en el año 2002 o anteriores.

Si lo que se tiene en cuenta es el sector de actividad al que pertenecen los establecimientos, se observa cómo en industria el 30,5% del total tienen página Web, mientras que en el sector servicios alcanza al 24,7% y, a continuación, aunque ya más alejado, está el sector construcción con un 9,7%. Este orden varía si se tiene en cuenta el tamaño del establecimiento ya que, en los de 10 o más empleados, es servicios con un 72,3% el sector que ocupa el primer lugar, seguido por industria con un 66,4% y, por último, el sector construcción, con un 36,8%.


Ohartzekoa da, orobat, azken urteotan Euskadiko enpresen web orriak erritmo jarraituan sortu direla, urtean haien kopurua %10etik gora hazi baita, bai enpresa guztiak kontuan hartuta bai 10 langile edo gehiagokoen artean ere. Oraingo web guneetarik, erdiak baino gehiago 2002an edo aurreko urteetan sortuak dira.

Enpresen jarduera sektorea kontuan hartuz gero, hurrengo datuak atera ditzakegu: industri enpresa guztien %30,5ak web gunea dauka, zerbitzuetako enpresa guztien %24,7ak ere bai eta, gero, nahiko urrun, eraikuntza sektoreko enpresa guztien %9,7ak du web gunea. Ordena, haatik, desberdina da lantokiaren tamainari erreparatzen bazaio, 10 langile edo gehiagokoen artean zerbitzuetako enpresak daudelako lehen tokian (%72,3), industriakoak bigarren (%66,4) eta, azkenik, eraikuntza sektorekoak (%36,8).

Establecimientos con presencia en Internet por rama de actividad y estrato de empleo y año. (%)

Interneten ageri diren establezimenduak, jarduera-sektorearen eta langile kopuruaren arabera. (%)

12.



La Encuesta sobre la Sociedad de la información en empresas también permite conocer qué idioma o idiomas emplean las empresas en sus páginas Web, dependiendo del tipo de usuarios al que vayan dirigidos sus mensajes. El castellano es el idioma más utilizado, apareciendo en la práctica totalidad (97,6%) de las páginas Web de los establecimientos de la C.A. de Euskadi. A continuación, figura el euskera como idioma más empleado, pudiéndose encontrar en una de cada tres empresas con presencia en Internet, concretamente en el 33,7% de los casos. Seguidamente, está el inglés como tercer idioma, al encontrarse en el 29,9% de las direcciones existentes. Por último, también hay un 14,1% de páginas Web de empresas vascas en que se pueden encontrar otros idiomas.

Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta honen (Enpresak) bidez ere jakin dezakegu enpresek zein hizkuntza erabiltzen duten web guneetan; enpresek mezua nori helarazi nahi dioten hartzen dute kontuan web guneko hizkuntza ezartzean. Gaztelania da gehien erabiltzen den hizkuntza, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen web gunea guztietan ageri da (%97,6). Gero euskara da gehien erabiltzen dena; Interneten ageri diren hiru enpresetatik batean erabiltzen da, hau da, enpresen %33,7k erabiltzen dute hizkuntza hau. Gehien erabiltzen den hirugarren hizkuntza ingelesa da, helbide guztien %29,9an agertzen baita. Badaude beste hizkuntza batzuk ere euskal enpresen web guneetan, %14,1ean hain zuzen ere.

INTERNETEN DAUDEN ENPRESAK, ONDOKO HAUEN ARABERA: ORRIKO HIZKUNTZA, LURRALDE HISTORIKOA, JARDUERA SEKTOREA ETA LANGILE KOPURUA. 2006. (%)

ESTABLECIMIENTOS CON PRESENCIA EN INTERNET POR IDIOMA EMPLEADO, SEGÚN TERRITORIO HISTÓRICO, SECTOR DE ACTIVIDAD Y ESTRATO DE EMPLEO EN 2006 (%)

	Euskara Euskera	Gaztelania Castellano	Ingelesa Inglés	Bestelakoak Otros
Lurralde-eremuak / Ámbitos Territoriales				
Euskal AE / C.A. de Euskadi	33,7	97,6	29,9	14,1
Araba / Álava	27,4	96,6	33,5	13,8
Bizkaia	30,3	98,4	30,1	12,9
Gipuzkoa	41,0	96,9	28,2	16,0
Jarduera-adarra / Rama de actividad				
Industria	24,9	96,7	46,4	23,3
Eraikuntza / Construcción	26,2	100,0	12,6	8,6
Zerbitzuak / Servicios	35,4	97,6	28,9	13,3
Enplegu-geruza / Estrato de empleo				
0etik 2ra / De 0 a 2	32,1	97,3	25,0	11,9
3tik 9ra / De 3 a 9	32,5	97,5	27,0	11,4
10etik 19ra / De 10 a 19	35,4	98,4	38,3	21,0
20tik 49ra / De 20 a 49	42,9	98,9	47,8	25,6
50tik 99ra / De 50 a 99	42,0	98,8	49,1	26,8
100 eta gehiagoak / De 100 y más	39,3	96,9	62,5	28,1

Como se observa en la tabla, la utilización de estos idiomas también depende de la distribución geográfica y del sector de actividad al que pertenecen las empresas. Así, mientras que la utilización del castellano es muy similar en los tres territorios históricos, en el resto de los idiomas empleados no ocurre lo mismo. En el uso del euskera, es Gipuzkoa donde aparece en un mayor porcentaje de páginas Web, con un 41,0%, mientras que en Bizkaia supone el 30,3% y en Álava el 27,4%. Por su parte, en el inglés se dan unos porcentajes por territorio con un orden inverso al del euskera, esto es, en primer lugar aparece Álava, 33,5%, después figura Bizkaia, 30,1% y en último lugar Gipuzkoa, 28,2%.

Por sectores económicos también se dan diferencias en la utilización que se hace del idioma en las páginas Web. Resaltar cómo en industria es donde más se ha incorporado el inglés, con un 46,4%, y la que menos utiliza el euskera, con un 24,9%. En el sector servicios, por el contrario, al 35,4% de las direcciones se puede acceder en euskera y al 28,9% en inglés. El sector construcción, por su parte, aunque tiene menos establecimientos con página Web (9,7%), de ellos, el 26,2% utiliza el euskera y el 12,6% emplea el inglés. Otra característica a resaltar sería que según aumenta el tamaño de los establecimientos también crece el abanico de idiomas ofertados en la red. El uso del inglés, en concreto, se va generalizando, hasta alcanzar al 62,5% de los establecimientos de 100 o más empleados.

Finalmente, y respecto al año anterior, los porcentajes de utilización de idiomas en las páginas Web son muy similares, lo que indica una cierta estabilidad en los datos obtenidos.

Si disponer de un sitio Web es importante para poder catalogar y medir la incorporación de las nuevas tecnologías, no es menos importante analizar qué prestaciones o funciones ofrecen las empresas que han decidido asomarse a Internet por medio de una página propia.

Taulan ikusten denez, enpresaren kokapen geografikoak eta haren jarduera sektoreak eragina dute web gunearen hizkuntza aukeratzean. Izan ere, gaztelaniaren erabilerak antzeko garrantzia dauka hiru lurralde historikoetan baina beste hizkuntzei dagokienez aldeak daude batetik bestera. Gipuzkoako web guneetan erabiltzen da gehien euskara (%41,0); baina Bizkaian web guneen %30,3an erabiltzen da euskara eta Araban web guneen %27,4an. Aitzitik, ingelesaren kasuan euskararen erabilerak izan dituen ehunekoak alderantziz agertzen zaizkigu: Arabak erabiltzen du gehien ingelesa (%33,5), gero Bizkaiak (%30,1) eta azkenik Gipuzkoak (%28,2).

Sektore ekonomikoen arabera ere alde handiak daude web gunean erabilitako hizkuntzari dagokionez. Azpimarratzekoa da industrian erabiltzen dela gehien ingelesa (%46,4) eta gutxien euskara (%24,9). Zerbitzuetan, berriz, euskaraz helbideen %35,4ra iritsi daiteke, eta %28,9ra ingelesez. Eraikuntzan web gunea duten enpresak urriagoak dira (%9,7), baina haietako %26,2k euskara erabiltzen dute, eta %12,6k ingelesa. Beste datu azpimarragarri bat da zenbat eta handiagoa izan enpresa orduan eta hizkuntza gehiago eskaintzen dituela sarean. Zehazki, ingelesaren erabilera orokortzen ari da: 100 langile edo gehiagoko enpresen %62,5ak erabiltzen du.

Amaitzeko, aurreko urtearen aldean web guneetan ageri diren hizkuntzen erabilerari buruzko ehunekoak oso antzekoak dira eta, beraz, lortutako datuak nahiko egonkorak dira.

Teknologia berrien erabilera maila neurtzean oso lagungarria da enpresek web gunea duten jakitea, eta hori bezain argigarria da nolako zerbitzuak eta aukerak eskaintzen dituzten, Interneten, beren web orria edukitzea erabaki duten enpresek.

Las principales empresas utilizan sus páginas Web como una ventana informativa al exterior, exponiendo sus diferentes actividades. Éstas van desde las relacionadas con la publicidad y exposición de sus productos o servicios hasta las puramente comerciales, que incluyen tanto las compras a sus proveedores como las ventas a sus clientes.

Entre las principales prestaciones y características que se encuentran en las páginas Web de las empresas, se pueden observar desde las funciones exclusivamente informativas, hasta las que permiten realizar las ventas y los pagos de las transacciones efectuadas.


Empresa garrantzitsuenek bere web guneak erabiltzen dituzte kanporako informazioa emateko eta enpresaren jarduerak azaltzeko. Hau da, enpresak eskaintzen dituen produktuen edo zerbitzuen publizitatea egiten da, horiek erakusten dira eta merkataritza hutseko jarduerak azaltzen dira eta, horien artean, hornitzaileei erosteko eta bezeroei saltzeko zerbitzuak.

Enpresen web guneetan aurki daitezkeen zerbitzu eta ezaugarri ezberdinak daude, informazio hutsa ematen dutenetik saltzeko eta ordainketak egiteko aukera ere ematen duteneraino.

Establecimientos con presencia en Internet por prestaciones ofertadas en 2006. (%)

13.

Interneten dauden enpresak, eskaintzen dituzten zerbitzuen arabera, 2006. (%)



Observando el tipo de prestaciones que ofrecen las empresas en sus páginas Web, se puede comprobar qué grado de aceptación alcanzan las diferentes opciones. Así, se observa cómo en casi todas las páginas Web, concretamente en el 96,9%, las empresas ofrecen información general sobre la propia empresa y, en la mayoría de los casos, en el 86,4%, se puede obtener una lista o un catálogo de los bienes y servicios de que disponen.

Otras opciones, como la declaración de privacidad de la información, que aparece en el 37,2% de las páginas disponibles, los servicios post-venta, opción recogida en el 24,0% de las direcciones, información sobre ofertas de empleo, que se pueden encontrar en el 21,5% de las páginas, o las transacciones protegidas, que alcanzan al 20,5%, se encuentran en una situación intermedia.

Por último, las prestaciones con menor utilización, como se observa en la parte baja del gráfico, son las que están más relacionadas con la operativa comercial de las empresas, como el seguimiento de los pedidos, en un 15,3% de las páginas, el pago directo "on line" de los productos y servicios, en el 11,2%, y la distribución directa de los productos digitales o servicios suministrados en la misma red (software, informes, etc.), que lo ofertan escasamente el 8,1%.

Horrenbeste zeregin bideratzeko aukera izanik, tresna honek erabat eralda ditzake merkataritza eta enpresen jarduerak. Ia web gune guztietan, %96,9an zehazki, enpresei buruzko informazio orokorra azaltzen da, eta gehienetan (%86,4) haien ondasun eta zerbitzuen zerrenda edo katalogo bat.

Beste zerbitzu batzuk ere badaude; esate baterako, informazioa pribatutzat deklaratzeko aukera orrien %37,2an eskaintzen da, saldu osteko zerbitzuak %24,0an, lan eskaitzei buruzko informazioa %21,5ean edo transakzio babestuak %20,5ean.

Azkenik, grafikoaren behealdean ikusten da gutxien eskaintzen diren zerbitzuak enpresen merkataritza jarduerari lotuenak direla; hala gertatzen da, adibidez, eskaeren jarraipenarekin (orrialdeen %15,3an), produktuak eta zerbitzuak "on line" ordaintzeko aukerarekin (%11,2) eta sarean hornitzen diren produktu digitalen edo zerbitzuen zuzeneko banaketarekin (softwarea, txostenak, etab.), hauen %8,1 bakarrik eskaintzen baita.

En cuanto a la posibilidad de realizar pagos a través de la Web de los productos y servicios adquiridos, hay que comentar únicamente que son las empresas del sector servicios las que disponen de esa opción en mayor medida que en el resto de los sectores. Así, mientras que en el sector servicios supone el 12,8% de las páginas Web, en el sector industrial alcanza apenas el 4,8% y es prácticamente inexistente en construcción, 0,8%.

6. COMERCIO ELECTRONICO

Además de conocer qué equipamientos tienen las empresas vascas en tecnologías TIC y su evolución, es objetivo primordial de esta encuesta saber cómo se desarrolla y qué progresión está teniendo el comercio electrónico.

Entre las posibilidades que ofrece Internet se encuentra poder realizar comercio electrónico y, aunque de momento no se están cumpliendo las muy optimistas previsiones que había por parte de la mayoría de expertos en la materia, sí se está dando un aumento constante, tanto en las cifras económicas que mueve como en la incorporación de un mayor número de empresas que participan en él, así como de los productos, bienes y servicios que son objeto de transacción comercial por esta vía.

En esta encuesta, a la hora de analizar esta variable, hay que tener en cuenta que la unidad de análisis es el establecimiento y no la empresa. Esto crea una dificultad añadida al estudio de la propia variable ya que, muy frecuentemente, cuando una empresa tiene varios establecimientos, el total de compras y de ventas electrónicas que realiza, lo centraliza en uno de ellos, teniendo, por tanto, mucha importancia la unidad o unidades que aparezcan en la muestra.

También hay que precisar que los datos económicos son relativos a 2005, a diferencia del resto de información contenida en este estudio, que está referenciada al momento de la encuesta, esto es, al primer trimestre de 2006.

Erositako produktuak eta zerbitzuak web gunearen bidez ordaintzeko aukerari dagokionez esan behar da zerbitzuetako enpresek ematen dutela batez ere aukera hau, gainerako sektoreetako enpresek baino gehiago. Zerbitzuen sektorean web guneen %12,8ak ematen du aukera hau, industri sektorean horien %4,8ak eta eraikuntzaren sektorean aukera hau ia ez da ematen (%0,8).

6. MERKATARITZA ELEKTRONIKOA

EAEko enpresek IKT teknologietan zein hornidura duten eta horien bilakaera zein izan den jakiteaz gainera, inkesta honen bidez jakin dezakegu zein den horien merkataritza elektronikoa eta merkataritza mota honek zein aurrerapen izan dituen.

Internet bidez merkataritza elektronikoa egin daiteke. Orain arte ez dira bete arlo honetako aditu gehienek iragarri zituzten aurreikuspen oso baikorrak, baina gero eta gehiago da merkataritza mota honek mugitzen duen dirua, gero eta enpresa gehiagok parte hartzen du horretan eta, gainera, gero eta produktu, ondasun eta zerbitzu gehiago salerosten da sarearen bidez.

Inkesta honetan, hala ere, aldagai honi ekitean kontuan izan behar da azterketarako unitatea ez dela enpresa, establezimendua baizik. Datu honek ilundu egiten du gaia, establezimendua batzuk dauzkaten enpresen kasuan haien salmenta eta erosketak elektronikoko guztiak, maiz, toki batean zentralizatzen direlako, beraz, arreta handiz begiratu behar da zenbat unitate jasotzen diren laginean.

Ez da ahaztu behar, bestalde, inkestako datu ekonomikoak 2005ekoak direla, eta ikerketa honetako beste datuak, ordea, 2006ko lehen hiruhilabetekoak, hots, inkesta egin zenekoak.

2.TAULA
TABLA 2
INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA-ENPRESAK
ENCUESTA SOBRE LA SOCIEDAD DE LA INFORMACION-EMPRESAS

MERKATARITZA ELEKTRONIKO BIDEZ EGINDAKO EROSKETAK ETA SALMENTAK, LURRALDEAREN, JARDUERA-ADARRAREN ETA ENPLEGU-GERUZAREN ARABERA. (MILIOI EUROTAN ETA %TAN)

COMPRAS Y VENTAS A TRAVÉS DE COMERCIO ELECTRÓNICO SEGÚN EL TERRITORIO, LA RAMA DE ACTIVIDAD Y EL ESTRATO DE EMPLEO (EN MILLONES DE EUROS Y %)

	EROSKETAK COMPRAS			SALMENTAK VENTAS		
	2004	2005	%	2004	2005	%
Euskal AE / C.A. de Euskadi	2.012,5	2.371,7	17,9	4.311,8	5.008,1	16,1
Lurralde Historikoa / Territorio Histórico						
Araba / Álava	417,4	476,3	14,1	2.142,5	2.367,1	10,5
